



**COVID-19ARI BURUZKO  
GOGOETA ETIKOAK**

**“ADINA  
EZ DA GAKOA, ETA  
SEGURTASUNA EZ DA  
GAUZA  
GARRANTZITSU  
BAKARRA”**

Matia Fundazioko eta Hurkoa Fundazioko Esku Hartze  
Sozialeko Etika Batzordea

2020. urtea koronabirusaren pandemiagatik igaroko da historiara, osasun, gizarte eta ekonomia mailan, besteak beste, aplikatutako neurriek eragin handia izan dutelako. Izan ere, askotan, erabakiak hartzerakoan, balioei eta eskubideei buruzko gogoetak eta ondoriozko gatazka etikoak aurrez aurre izan dira.

Etikaren ikuspegia behar da gizartearen eta pertsonen eguneroko egungo arazo nagusiak jorratzeko, beharrezkoa baita jabetzea egiten dugun ekintza eta hautaketa bakoitzean balio batzuk lehenesten ditugula beste batzuen kaltean. Ildo horretan, krisi honetan agintea duten politikarien eta erakunde arduradunen erantzukizuna da hartzen dituzten erabakiek eta garatzen dituzten jarduketek proiektatzen dituzten balioen kontziente izatea.

Gure iritziz, garrantzitsua da erabaki eta jarduketa horietako batzuei buruz hausnartzea, positiboak direnak finkatzea eta gure ustez neurri zuzentzaileak behar dituztenak zuzentzea. Ildo horretan, beste erakunde eta profesional batzuek hausnartu egin dute COVID-19aren egungo pandemia kudeatzeko hartutako zenbait neurriren ondorioz gertatzen ari diren desberdintasunen harira. Guk, lehenik eta behin, hausnarketa horiekin bat egiten dugula adierazi nahi dugu.

Egin zaizkigun kontsultei erantzuteko, dokumentu honetan jaso ditugu hauteman ditugun egoera zehatzei buruzko hausnarketa batzuk.

Egunotan askotan galdetu diogu geure buruari zein den gure osasun kontzeptua. Kontzeptu globala da? Barne hartzen al ditu osasun fisikoa, psikoafektiboa, soziala eta espirituala? Haren alderdi guztiak errespetatzen edo aintzat hartzen ari gara krisi honetan? Noren esku dago **komunitatearen osasuna zaintzea?** Osasun agintarien esku dago soilik? Norberaren portaerak osatzen du komunitatearen erantzuna.

Halaber, zalantzan jarri dugu norberaren **erantzukizunaren** eta taldearekiko erantzukizunaren arteko lerroa. Egin behar ditut nahi edo gustuko ez ditudan gauzak? Gizarte autonomista honetan, ezin ditut neure arriskuak nire gain hartu?

Behin eta berriz azpimarratu da gizabanakoak kolektiboan duen eraginaren eta kolektiboak gizabanakoarengan duenaren arteko harreman estua. Harreman horretan, besteak –hots, gizarte osoa– eta pertsona bakoitza hartu behar dira kontuan.

Gutako bakoitzaren, gizarte erakundeen, instituzioen eta abarren erantzukizuna da gure eguneroko portaeretan garrantzitsuentzat jotzen ditugun balioak defendatzea, balioestea eta aktiboki sustatzea, gure gizartean sustraitu daitezen, eta erabakiak hartzeko eta politikak eta egiturak sortzeko euskarri izan daitezen. Izan ere, horri esker, gizartea etorkizuneko krisiei aurre egiteko prestatuago egotea lor daiteke, betiere, pertsonen duintasuna, ekitatea, justizia eta autonomia aintzat hartuta.

**Justizia banatzailea**, baliabideen banaketa eta triajea. Une jakin batean, baliabideak ez dira behar guztiak betetzeko adina. Hori errealitate bat da. Zer irizpide erabiltzen ditugu teknika edo tratamendu baten onuradunak hautatzeko?

Baliabideak lehenestea ohikoa da gure gizarte eta osasun ingurunean. Horretarako, irizpide berak ezarri behar dira denentzat. Eta banaka aplikatu.

Hau da eskura dauden osasun baliabideak esleitzeko irizpide onargarri bakarra: pertsona bakoitzarengan ebidentzia zientifikoaren arabera izango duten onura.

Adina, gaitasun funtzionala edo maila kognitiboa ezin dira irizpide baztertzailerak izan osasun arretako zerbitzuak emateko orduan; hain zuzen, hori ikusi dugu azken hilabete hauetan protokolo batzuetan. Baina, zorionez, profesional askoren lan onaren ondorioz, egunerokoan irizpide onarekin eman dira osasun zerbitzuak, protokolo horiek zorrotz aplikatuta sor zitekeen diskriminazioa alde batera utzita.

Gure **eskubideak mugatu** dituzten neurriak hartu dira, gizarte eskubideak (etxetik irtetea, nahi ditugun jarduerak —paseatzea, kirola, aisia...— egitea eta abar) eta eskubide ekonomikoak (merkataritza jarduerak mugatzea, besteak beste) mugatu dituztenak. Zer egoeratan edo zer baldintzatan mugatu daiteke eskubide bat? Etxetik irtetea edo etxe barruan nahi duzuna egitea mugatu daiteke?

Hartzen diren neurri guztiek pertsonaren duintasuna errespetatu behar dute, eta zuzentasunez diseinatu eta ezarri behar dira, eskubide eta proportzionaltasun berdintasuna bermatuta, eta sortzen dituzten ondorioei erreparatuta.

Larrialdi testuingurua kontuan hartuta, egokitzat jotzen ditugu itxialdi neurriak. Alabaina, larrialdi egoera horrek aldi baterakoa eta mugatua izan behar du, eta, betiere, proportzionala, lurralde bakoitzeko benetako arriskua eta egoera epidemiologikoa kontuan izanik. Testuinguru horretan hartzen diren neurriak behar-beharrezkoa baino gehiago zabaltzeak abusua, bazterkeria edo tratu txarrak ekar ditzake.

Balio guztiak onak dira berez, eta horietako bakoitza ahalik eta gehien erabiltzeko joera dugu, eta izan behar dugu. Hau da, pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko aukeren artean, beste balio batzuk (autonomia, mugikortasuna, gizarte harremanak, heriotza ona eta abar) maximizatzen dituztenak bilatu eta hartu behar dira.

Isolamendu neurriak guztion ongiaren mesedetan hartu dira. Uniformeak eta zurrinak dira, eta ez dute kontuan hartzen pertsona edo kolektibo bakoitzarengan duten eragina.

Protokoloek malguak izan behar dute. Edozein jarduera protokolorik, aldi baterako larrialdi egoera honetatik kanpo, kasu bakoitza aztertu behar du, eta ezaugarri eta baliabide zehatzak jaso behar ditu, baita beste printzipio eta balio batzuk gehiago lortzea ekar dezaketen aukerak ere, pertsonen osasun integralaren eta ongizatearen mesedetan.

Zenbait kasutan, murrizketa fisikoa ezarri zaio egoiliarren bati, hartutako neurriak betearazteko, hala nola isolamendua eta/edo segurtasun distantzia unitate psikogeriatrikoetan. Neurri horietako batzuek ez dute atzera bueltarik, bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonen aplikatzen zaizkienean; esaterako, lagun egiteko eta agurtzeko aukerarik ez izatea edo meztidura prozesua (gauza pertsonalak, hil oihal bakoitza lainoztatzea). Horrek eragina izan du senideen eta erabiltzaileen beraien doluan.

Krisi egoera honetan, aurretiazko borondateak adierazteko eskubideari eusten diogu, eta, beraz, kontuan izan behar dira guri dagozkigun erabakiak hartzerakoan. Orobat, baimen informatua emateko eskubideari, tratamenduei uko egiteko eskubideari eta arrisku pertsonal jakin batzuk onartzeko autonomiari ere eusten diegu.

**Aniztasuna aintzat hartzea.** Denok ez gara berdinak, eta hartzen diren neurriek ez dute eragin bera pertsona bakoitzarengan. Neurrien ondorioak izan behar ditugu kontuan, pertsona jakin batzuentzat —euren egoera partikular dela eta — ondorio desberdinak edo kaltegarriak eragiten ote dituzten jakiteko. Egoera horiek aintzat hartu behar dira. Zenbaitek susmoa dute neurri horietako batzuk ez direla kaltegabeak. Horrenbestez, beharrezkoa da itxialdi luzeak pertsonen osasunean eta ongizatean izan ditzakeen ondorioak aztertzea.

Etxeke itxialdiak aparteko ondorioak izan ditzake familia ahulentzat, bai eta, besteak beste, luzaroan bakarrik dauden pertsonentzat, isolamendu egoeran daudenentzat, nahasmendu mentalak dituztenentzat, laguntza premian daudenentzat eta dolua egiten ari direnentzat.

Egoitza zentroetan, haietan bizi diren pertsonen etxean, hainbat alderdi identifikatu ditugu eta arretaz aztertu nahi ditugu. Egoitza zentroak ez dira ospitaleak, eta ez dugu nahi horrelakorik izatea. Pertsonen etxea dira. Pertsona horietako askok laguntza behar dute. Eta gainerako herritarren eskubide berak dituzte, hori gogoraraztea beharrezkoa ez bada ere.

Itxialdia gelan egiteko neurri orokorra zorrotzegia eta neurritz kanpokoia izan daiteke. Kutsatuta ez dagoen adineko baten mugikortasuna bere gelara murriztea, balizko arriskuagatik soilik, jokoan dauden inplikazio edo aldagai guztiak kontuan hartzen ez dituen neurria da. Halaber, gerta daiteke sendatu diren pertsonak berriro gela batean itxita egotea, bizi den unitateari edo egoitzari interesatzen zaizkion neurri murriztaileen irizpideei men egiteko.

Egoitza zentroak askotarikoak dira, eta, euren egiturak, profilak, egoiliarren eskura jartzen dituzten laguntzak eta abar kontuan hartuta, aukera ematen dute neurrien aplikazioa modulatzeko, ezaugarri horietara eta bertan bizi diren pertsonen profilerara hobeto egokitze aldera.

Kezkatuta gaude gizarteak adineko pertsonen, beste kolektibo zaugarri batzuek eta egoitza zentroyez pentsa dezakeenagatik, pandemiaren bilakaeraren eta hari heltzeko moduaren ondorioz. Asko dira pertsona horien duintasunaren, berdintasuneko tratua eta begirunearen alde lan egiten duten profesionalak, kolektiboak eta erakundeak. Eta ikusten ari garen neurri, albiste eta ikuspegi batzuek kalte egin diezaioke orain arte lortutakoari.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa dirudi daukagun gizarte eredu soziosanitarioari buruz hausnartzea. Guztiak, baita pertsona kalteberak, baztertuak, desgaituak, mendekoak eta abar ere, artatuko dituen arreta eredu baten alde lan egitea. Gizarte premiei eta osasun publikoko premiei modu integral, koordinatu eta malgu batean erantzungo dien eredu baten alde egitea, arriskuaz eta segurtasunaz gain pertsona ere ardatz duen eredu baten alde egitea.

Berriz ere, garrantzizkoak dira gizarte eta osasun baliabideen —publikoen zein pribatuen— arteko koordinazioa eta osagarritasuna. Itxialdia arintzeko lehen fase hauetan, adibidez, pertsona batzuk lanean hasi dira, baina haien senideak ezin dira eguneko zentroya joan, edo laguntza gehien behar dutenak zerbitzua lortzen azkenak izan daitezke, segurtasun irizpideei jarraituz.

**Erabakiak hartzea.** Gure ustez, ez da partaidetzazko hausnarketarik egin, ez da erakunde askorekin hitz egin, eta, hortaz, ezin izan dira ahalik eta erabakirik zuzunak hartu. Etikan, ahalik eta balio gehien lortzeko aukera maximizatzen dutenak dira erabakirik zuzunak. Horretarako, ezinbestekoa da besteak aintzat hartzea, besteekin partekatzea. Nolabaiteko paternalismoa erakutsi dugu, guztiontzat ona zer den badakigula pentsatuta. Besteekin hitz egin ez izanak muturretako baten aldera inklinatu da balantza, osasun fisikoaren aldera hain zuzen, jokoan zeuden beste balio batzuk barne hartzen zituzten alternatibak bazter eginda.

Informazioa ere garrantzitsua da, eta eskuragarria eta ulergarria izan behar du pertsona guztiontzat. Gaur egun, faseak eta lurralde egoerak askotarikoak dira, eta, ildo horretan, nahasmenaren eta babesgabatasunaren arriskua hautematen dugu, bereziki kolektiborik zaugarrienetan. Une batzuetan erabili izan den «gerra» hizkuntzak beldurra sortu du zenbait pertsonarengan. Agorafobia sintomak hauteman ditugu euren etxean dauden pertsonengan, orain inguru horretatik irteteko beldur baitira.

Nolanahi ere, egoera horretatik **alderdi positiboak** ere atera daitezke, zalantzarik gabe. Badirudi ezinbestekoa dela ikusten ari garen lanbide, kudeaketa eta gizarte jardunbide egokiak identifikatzea, definitzea eta inplementatzea, haiei heltzeko ikasbide gisa. Baita erakutsi ditugun baliabide pertsonalei ere.

«Poztasunaren paradoxa» berreskuratu dugu, COVID unitate batzuetan bizi izan den laguntze eta partekatze horretan. Askotariko egoerak izan dira, naturaltasunez onartuak. Haien ondorioz, honako hau esan izan da: «Bakarrik hiltzea da okerrena, ez hiltzea». 102 urteko egoiliar batek, COVID-19tik sendatu ondoren, «ez nazazue nire gelara eraman» esan zuen, Covid unitatean izandako «bizikidetz» esperientziaren ostean.

**Prozesu honetan sufrimendu egoeretan pertsona askok erakutsi dituzten erresilientzia, onarpena eta babesa haietako bakoitzaren duintasunaren isla dira, eta aintzat hartu behar dugu hori.**

Bidezkoa iruditzen zaigu, halaber, hainbeste kolektibok eman diguten erantzun eredugarria (eskuzabaltasuna, ausardia...) aitortzea. Osasun arloko, laguntzako, garbiketako, garraioko, elikadura-sektoreko eta abarretako profesionalen lana, alegia. Gure ingurunean, zehazki, fisioterapeutak izan dira eredugarriak, laguntzaile eta garbitzaile aritu baitira, eta babesteko ekipamenduak egin baitituzte. Eta eguneko zentroetako langileak ere gogoan izan behar ditugu, egoitzetan lanean jardun baitute.

Gure onena eman dugu, eta hainbat jokabide eredugarri ikusi ditugu: borondatezko lana, partikularren eta enpresen dohaintzak, erantzun kolektiboa, sufritzen dutenekiko enpatia, eta abar. Baliabide teknologikoen egoerari aurre egiten lagundu dute; adibidez, bideo deiak egiteko eta egoiliarak euren senideekin harremanetan egoteko. Komunitatean elkartasunaren balioak gora egin duela sentitu dugu.

Ez dugu erlaxatu behar, egokitu baizik, eta **etorkizunerako prestatu**, agertoki berrirako. Zerbitzuak planifikatu behar ditugu, pandemia honetan lortutako ikasbideak kontuan hartuta.

Besteak beste, banakako gelen kopurua kontuan hartu behar dela ikasi dugu, baita errealitate berri honetarako pentsatutako prestakuntza eta protokoloak garatu, komunitatearen laguntza sarea finkatu eta boluntarioritza bideratu ere.

Asko aldarrikatzen, iragartzen edo irudikatzen ari dira **kontzientzia aldaketa** orokorra behar dela, gutako bakoitzak eta gizaki guztiok, oro har, gure helburuen baitan aintzat hartu edo sar ditzagun gizadia bera, planeta eta unibertso osoa, haren mikropartaideak garen aldetik.

Gizarte gisa, mugarri horiek baliatu behar ditugu aurrera egiteko. Espero dugu pandemia honek, eragiten ari den ondorio izugarrietatik harago, aurrerapauso bat ekarriko digula –aurreranzko jauzi bat, kontzientzia orokorraren garapenean–, elkartzen lagunduko digula, eta garen eta osatzen dugun guztiarekiko maitasun helburu unibertsalak adostasunean partekatzeraren eramango gaituela.